

GURE LURRA¹



Jaunak: ¿zer ederra, pozgarriya eta Jaungoikoaren Legeari dagokiona dan, famili batean, guraso eta semeak elkarturik, festa bat egitea: bada au ikusten det gaur nik Mondragoiko erri alai eta maitagarri ontan, bertako Bilguma argidortar edo Ayuntamentua bere Diputazio chit goituarekiñ bildurik dagola, zergatik Diputazioa izan dan beti, eta oraiñ ere dan, gure probinzi Gipuzkoa laztanak dituen erri guztien gurasoa. Guraso onak bezela nabaitzendu zenbat eta zenbat esan nai duen nekazaritzak, zelai eta ganadu lanetan, gure bizi-modurako, eta asten da aurten erriyetera etortzen, sariyak eskeñirik ayei laguntzeko. Eskerrak merezi ditu Diputazioak.

Baña famili bat, ez liteke bizi lurrari begira bakarrik; lurrez-goï mantentzen dute bere aurrekoen izkuntza, oitura eta oroitzak, eta be-ragatik, antziñeko gure Fuero edo Lege Zar sekulan aztuko etzaigunaren Junta orogarrien erara biltzen gera gaur emen; eta gogoratzen zait galdetzea: ¿zer nai degu guztiyok eta bakoitzak? ¿zeren billa da-bil gizona jayotzetik illtzerano? ¿ez dabill zorionaren billa?.....

Bai noski; bada, zorion egiazkoa da bat, egiya bat dan bezela, eta au kontuan iduki bear degu euskaldúnok, zorion falso edo gezu-rrezkoen atzetik ibilli gabe, gaurko egunean erri eta gizon askoren griña dan bezela, oitura onak, zarrak diralako aitzakiyarekiñ, alde batera utzi eta iya azturik. Euskal-oitura onak ez lirake onak izango zartuko balira: ¿non dute beren sustraya? Jaunaren Lege santuan. Eta ¿menturaz zartutzen da Jaunaren Legea? ¿Ez da bat eta betiko? Argá-

(1) Diputazio chit goituak Uztaren 5-ean emantako bazkari-nagusian, irakurri zuen jolas-aldi au beraren egilleak.

tik, oitura oyek utzirik, berriyen atzetik zorionaren billa dijoan euskalduna, da itzal bat arrapatu nayan dabillen choro bat bezela: egin-go ditu alegiñ guztiak, eta azkenik bereganatuko ditu nekea eta nagabea, korrika dabillen bitartean munduko ondasun eta diru guztiak eskuetaritzen baditu ere, zergatik dirua eta zoriona ez diran biyak bat.

Badira diyotenak oitura onak galtzen dijoazela; nik ez det uste, baña ala balitz, esan genezake: geok geren buruak galtzen goazela. Egia da gaurko euskaldunen bizitza alde askotara ez dala lengoa, baña orregatik beragatik eutsi bear diyotegu obeto denbora guzietako onak diran gauzai, beti ontzat artuaz, (jakiña da), denborak dakartzkien aurreramendu Elizak bedeinkatzen dituenak, nola diran burnibide eta beste geyago.

Eta orla bizi bada euskaldun bakoitza, izer zoriona gure lur guztian!.... zergatikan Euskal-erri guztia ez da gure famili zabaldua baikik: echeetako gelak dirurite mendi maiteen arteko ibar zoragarriyak moduren batian: geletan anáyak arkitzen diran bezela, ala mendi kolkoetan ere topatzen gera euskaldúnok, denok elkarrekiñ goazen orduan goizean Elizara, arratsaldean plazara zortzikoa dantzatzera, illunabarrean echera, egunari agur egiñik gure lengo kanta zoragarriyak lurretik zerurá bigalduaz: eta a la nola echeak tellatu bat duen, ala probinziyak du tellatutzat Zerua. ¿Nola ez gera bada anayak izango. ?

Begirunea Elizari, errespeta onen ondoan alchatzen dan Konseju echeko justiziyari, lanerako griña, naitasuna eta amorioa familiyari: birtute oek ikusten ditut lengo euskaldunetan, zeñak euskaldunak ziran euskaraz mintzatu eta bizitze n ziralako; bestela ¿nola Eta doai eder oyen ondoren, gordetzen zituzten beste batzuek ere. Or, non naiko baserri batean, jayotzen zan aur bat: semea bazan, bere aitak aldatzen zuen aritz bat atariyan, Gernikako arbola santuaren oroitzan, aditzera emanik euskal-mutilla jayotzen dala arbol ura defenditzeko, eta bere echeak arren itzalpean izan bear duela; alaba bazan, aldatzen zuen inchaur bat, adier azorik emakumiari dagokiyola echeko gobernu, inchaurrak alchatu eta kontuz gordeaz, jai aundietarako, eta batez ere Onenzaroko gau zoragarri artan famili guzia sukaldean bildurik Jesusen jayotza zelebratze ko.

¿Zenbat eche ataritan agertzen zaizkigun gure gurasoak aldatutako arbol eder oyek!.... jarri ditzagun beti guk ere. Bestela, emendik urte batzuetara, euskal-eche atari paregabeak arkiko dira soill, aztuko da

zer esan nai diguten arbol oyek, eta zartzen geranian ¡ai! etzaika etorriko gaur bezela ayen itzalian ešeri ta dagon aitonari belaun-besoetara illobachuak kontuak galdetzera. Eta etortzen bazaizka ¿zer esango, zer erakutsiko diye ordu triste artan, lurra soill, arbolik gabe, eta onen antzera biyotsa labe itzali bat bezela arkitzen badira?

¡O... ez!... erakutsi zayegun gure semeai euskaraz mintzatzen eta euskaraz bizitzen; zer giñan, zer geran, zer nai degun. Etorkizun beltza bestela. Erakutsi zayegun lana, errespetoa, limosna, garbitasuna, elkarganako amorioa eta laguntza zer ta nolakoak izan bear duten euskaldunen artean; eta azkenik, ondo ikasiyaz elkartzea, batutzea edo uniyua zéñen bearra dan, jar zayegun ejenplo au: ekar-zazute bakoitzak arbazta bat onera, bildu ditzazute batera, eta oraiñ autsi eskuz sorta ori erditik.—Eziñ!—Askatu, artu banaka eta saya.—Orla bai.—Bada, ori bera gertako da zuekiñ: elkartzen bazerate, etzaituzte autsiko; banakatu ezkerero, galduak zerate.

Kondairak au erakusten digu, garratzki gure egunetan.

Ez dezagula aztu, euskaldúnak.

Maite zagun gure lurra!

ANTONIO ARZÁC.

